

# EUSKAL MANIFESTU INTERNAZIONALISTA

## 1. Inperialismoa eta herrien burujabetza

Nekez bizi gara jendarte eredu honetan, non soldatapeko esplotazioak eta zapalkuntza hetero-patriarkalak herritar gehienak injustizia eta miseriara kondenatzen gaituzten. Nekez bizi gara, plusbalia pilaketak eta irabazien arteko konpetentziak arautzen dutelako, bidegabeki eta irrazionalki, ekinbide produktibo eta soziala; eta behar izan sozial, politiko edo ekologikoen gainetik errentagarritasunaren irizpideak nagusitzen direlako. Nekez bizi gara, kapitalismoaren biziraupenerako, jazarpen ekonomiko, politiko-ideologiko eta militarren bitartez, merkatuari eremu sozial eta geografiko berriak bidegabeki oparitzen dizkion sisteman.

Menperakuntza kapitalista, matxista, xenofobo, bortitz eta hedakorren emaitza da Inperialismoa, estrukturalki estatuek mantendua eta mundu mailan ezarria, klase eta herrien arteko banaketaren bidez.

Bi banaketa horien arteko desberdintasuna, baina, agerikoa da: lehena desagertu egin behar den bezala bigarrena birformulatu egin behar da. Klaseek deagertu behar dute, herriek ez. Klase banaketa esplotazio sistema baten emaitza dugu. Herri izaerak, ordea, ibilbide historiko batean sorturiko giza komunitateak dira. Desagertu behar duena, beraz, herrien arteko botere harremana da.

Hortaz, herri bakoitzaren desberdintasun kultural, linguistiko, historikoei edo kosmobisioei dagozkien banaketak ezin dira gainditu eta ez dago zertan gainditu beharrik, bere horretan ez baitute botere menpekotasunik ezartzen. Herrien izaera kalkula ezin daitekeen biodibertsitate sozio historikoak dakarren aberastasuna da. Hori, ezinbestez, jendarte eredu burujabe mantenduko da, (aldaketa kualitatibo nabarmenekin, hala ere) esplotazio eta zapalkuntza harremanak deuseztean.

Ondorioz, herrien burujabetza, klase independentzia eta independentzia nazionalean oinarritua, herri langileen premia da, hain zuzen ere, menpekotasun ekonomiko, politiko eta kulturaletik aska gaitezen. Borroka hau zilegi zaigu erabat gurean bezala estaturik ez dugunon kasuan edo estatua burgesia lokal, nazional edo transnazionalen eskuetan duten herrienean.

## 2. Internazionalismoa eta askapen prozesuak

Horrela, herrien arteko desberdintasun soziokulturalen edo tradizio politikoaren gainetik, helburu estrategiko bera dugu: Geure askapen nazional eta soziala, alegia. Guztiok ere esplotazio sistema eta zapalkuntza kapitalista-inperialista- patriarkalaren azpian gaudenez, izaera strategikoa dute

herri langile eta herri zapalduen arteko batasunak eta elkartasunak.

Orobat, sasilaguntza paternalista edo ongi-usteko humanitarismotik urrun, elkartasuna praktika politikoa da, sektore eta herri zapalduak bereganatzen duten kontzientzia eta zapalkuntzatik irteteko hartu-eman estrategiko gisa. Herri bakoitzaren askapenak beste herrion askapenean lotura zuzena duenez gero, internazionalismoa ezinbesteko osagaia dugu, zein nazioarteko indar metaketa ahalbideratuko duen berdintasunean eta elkartasunean oinarrituko den sistema etiko goren bat sortu ahal izateko.

Beraz, herri bakoitzaren kultura, denbora, lehentasun eta borroka moldeekiko errespetuz, klase borroka edo genero borrokari dagozkion marko autonomoen gainean, praktika internazionalista, guk ulertzen dugun bezala, joan-etorriko elkartasunaren eta elkarrengandik ikastearen bidez gauzatzen da: askapen prozesu nazional eta sozialak babestu eta bere azkeneraino eramanez, bakoitzaren herriaren askapen nazional eta soziala izanik lehen egitekoa.

### **3. Internazionalismoa eta euskal eraikuntza nazional eta soziala**

Internazionalismoak ez du inongo zentzurik gure herriaren eraikuntza nazional eta sozialaren proiektutik kanpo. Euskal Herri sozialista, euskaldun eta feminista lortzea ez da soilik euskal herri langilearen interes estrategikoa, baita sistema kapitalista-inperialista-patriarkala gainditzeko borrokan diharduten gainerako herri langileena ere. Horrela, gure helburu estrategikoak gauzatzeak (zazpi herrialdeendako estatu sozialista bat), aukera paregabea eskainiko lioke herri honi gainerakoekin benetako politika internazionalista garatzeko. Hauxe izango da, hartara, gainerako herriei euskal herri langileak egin diezaiokeen elkartasun ekarpen handiena.

Illo beretik, gure askapenak ez luke zentzurik izango eta ezingo litzateke gauzatu, ez bada internazionalismoa bere osotasunean barneratzen zeharkako elementu politiko gisan. Horrela, zinezko estatu independente eta sozialista bat ezingo da eskuratu, ezta mantendu ere, ez badu beregan internazionalismoa barneratzen. Hori lortuko dugu gure borrokarekiko elkartasuna artikulatuz, gainerako herrien borroka irakaspenei atea zabalduz, eredu kapitalista imperialista gainditzea helburu duten prozesuak babestuz eta haiekin elkartasun zubiak eraikiz. Azken batean, borrokaren alderdi guztiak zeharkatu eta bustiko dituen osagai internazionalista sendo bat behar dugu, eraikuntza nazional eta sozialeko partehartze alor guztietan eta borroka sektorial bakoitzean jardungo duena.

Horrexegatik guztigatik, internazionalismoa giltzarri askatzaile guztiz beharrezkoa da gure askapen prozesuan; eta zer esanik ez, egiturazko krisi kapitalista honen barruan. Kapitalak eta estatuak sortutako eraso ekonomiko, politiko eta militar honen aurrean, herri langileon arteko batasun eta elkartasuna sakondu beharko genuke, aterabide antikapitalista, antimatxista, antiarrazista,

antifaxista eta antiinperialista eraiki dezagun.

Internazionalismoa abertzalea izango da edo ez da internazionalismoa izango. Abertzaletasuna internazionalista izango da edo ez da abertzalea izango.

Gora Euskal Herria askatuta! Gora Euskal Herri sozialista! Gora Euskal Herri internazionalista!

